



## Adolfo Muñoz, Txiki

# «Grebak balio handia dauka ekintza bateratua bideratzeko»

Adolfo Muñoz (Mañueta, 1959) ELAko idazkari nagusia da iazko azaroaz geroztik. Gehiengo sindikalak krisiari erantzuteko greba orokorra deitu du M-21ean. “Ekintza sindikal bateratuaren atarian al gaude?”, galdetu diogu: “Oxala!”. Berari entzunda, errebindikazioaren garaia heldu dela dirudi behintzat: “Gure jendearen baldintzak oso gogorak dira”.

URKO APAOLAZA

Argazkiak: Judit Fernandez

**Patronalaren “xantaia” da zuentzat greba egiteko arrazoietakoa bat. Nola islatzen da xantaia hori?**

Oso erraza da. Patronala erregulazio espedienteak plantetatuz joaten da negoziatioetara, eta noski, espediente batek beldurra eragiten du jendearengan, hori aprobetxatzen du enpresak, patronalak, lan baldintzak negoziatzeko.

**Eta egunerokoa, praktikan?**

Ari dira esaten enpresak aurrera jarraitzeko soldatak behar direla murriztu –%15-20eko murrizketak ari dira proposatzen–, lan orduak gehitzea, malgutasun gehiago izatea... Hori da momentu honetan daukaguna. Baina lan baldintzek ez dute inolako zerikusirik gertatu denarekin, krisiaren oinarria beste leku batean

kokatu behar da eta horretaz ez dute hitz egin nahi. Soldatak ez dira egoeraren errudunak, ezta pentsatu ere.

**Greba deialdia kritikatu da esanez Administrazioek eta enpresek ezer gutxi egin dezaketela, krisia globala delako...**

Krisia orokorra da, baina leku guztietan ez da gertatzen hemen ger-



“Sindikalismoaren beharrak ezagutzen dituenak ulertzen du zergatik joan ginen bananduta Maiatzaren Lehenean”

tatzen ari dena: enpleguaren suntsiketa izugarria. Hazkunde garaian enpresak kontratu prekarioak egiten ditu eta krisiarekin enplegua suntsitzen du. Gobernuak, aldiz, ez dute ezer egiten horren kontra, ez dute ideiarik ere nola bideratu egoera hori. Politikak porrot egin du.

#### **Eta langileek sumatzen al dute patronala errudun dela?**

EEE-ekin (Eplegu Erregulazio Espedienteak) hori oso sozializatu dago gure gizartean. Gero, sistema ekonomiko eta politikoak badaramatza urte batzuk axolagabekeria ekoizten, eta gu ez gara salbuespena. Politika hori aldatu behar da, jendea kontuan hartzeko.

#### **Zer aldatu behar da?**

Gastu sozial gehiago behar da, greba orokorraren mezuetako bat hori da. Nola? Fiskaltasun progresiboarekin. Fiskaltasunak zentralitate osoa dauka guretzat, aldatu egin behar da justuago izateko.

#### **Gaur egunean greba bat al da modurik eraginkorrena “oxigenoa” emateko langile errebindikazioei?**

Dudarik gabe. Grebaren mezuaren sozializazioak indarra ematen digu

xantaia beste egoera batean kudeatzeko. Horregatik diogu oxigenoa eramane behar dugula enpresetara.

#### **Baina badago diskurtso bat esaten duena greba, momentu honetan, neurrigabea dela... Estrategikoki eraginkorra al da?**

Gauza bat esan beharra dago: greba orokorraren deialdia guri dagokigu, ez beste inori, hori bakarrik behar zen! Aurrekontuak kritikatzeko ditugunean esaten digute ez dugula horretarako eskubiderik, hauteskundeetara ez garelako aurkezten. Bada, sartzen bagara gure esparruan, langileok gure interesak ditugu eta ez diogu inongo politikariri azalpenik eman beharrik. Greba orokor bat konbokatzea oso legitimoa eta proportzionala da, gure eskubidea da.

#### **Grebaren emaitzak zuek uste ez bezalakoak badira, mobilizazioekin jarraituko duzue?**

**“Langileok gure interesak ditugu eta ez diogu inongo politikariri azalpenik eman beharrik; greba legitimoa eta proportzionala da”**

Oraindik egun batzuk geratzen dira eta lan egin behar dugu. Badakigu korrontearen kontra goazela eta gure jarrera oso gogorra dela, baina gure jendearen baldintzak ere gogorrrak dira. Maiatzaren 22tik aurrera jendeak behar duena da sindikatu gehiago eta horretarako agenda propio bat izan behar dugu.

#### **CCOOk eta UGTk ez dute greban parte hartuko eta kritikatu egin dute. Egin al du ELAK hurbilketa saiorik?**

Hau ez da edukazio kontu bat, gu oso edukazio onekoak gara. Gauza da deialdia egin baino lehen eta ondoren bi sindikatu horiek esan dutela ez dutela pentsatzen greba orokorra egiterik. Horren atzean bi eredu sindikal daude: elkarrizketa sozialean konfiantza dutenak eta errebindikazioan konfiantza dutenak, azkeneko hau da gurea.

#### **Elkarrizketa soziala aipatu duzu. Patxi Lopezek proposaturiko negoziazio mahaian ez zaretela egongo esan duzue. Zer eskatzen duzue mahaian egoteko?**

Elkarrizketa sozialak badu amarru bat, eta da Nafarroan gertatzen dena. Han Administrazioak nahi duena ematen dio patronalari, orduan zertarako nahi dute elkarrizketa soziala?

Beto moduan erabiltzeko. Gu prest gaude Gobernuarekin alde-bitara hitz egiteko, baina ez mahai horretan.

**Eusko Jaurlaritza berriaren kontrako greba bat dela esan izan dute. Greba politikoa al da?**

Greba sindikala da, baina helburu politikoak ditu. Gu ez gara alderdi politikoak, baina ez gara tontoak, eta nola ez, planteatzen ditugun ekimenek helburu politikoak dituzte. Beste kontu bat da gure sindikatua ez dagoela inork instrumentalizatua. Esaterako, Ibarretzek lehendakari jarraituko balu, greba berdin egingo genuke.

**ELAK, LABek eta beste sindikatu batzuek, elkarrekin egin duzue greba deialdia. Ekintza sindikal bateratura itzuliko zaretela esan nahi al du horrek?**

Oxala! ELAK eta LABek egungo egoera larria dela-eta adostu dugu greba orokorra egitea. Ez da gauza makala.

**Zer desadostasun daude? Negoziatio kolektiboan, akaso?**

Negoziatio kolektiboan eredu desberdinak ditugu bi sindikatuok, parte hartze instituzionalean gauzak ez daude adostuta eta esparru politikoan ere funtsean ez gaude ados. Hori horrela da, lehen zen moduan. Baina borondatea badugu gauzak bideratzeko eta greba bateratuak balio handia dauka, ea posible den etorkizunean zerbait gehiago egitea.

**Eta zer baldintza beharko litzateke?**

Baldintzak ez ditugu inoiz hedabideetan eztabaidatuko.

## Espainiar errekonkista *versus* abertzaleen arteko estrategia

**Lopez lehendakari izendatu dute. Zer irakurketa egiten duzu?**

Espainiarrak errekonkistan dira. Espainiar nazionalismoa Gasteizko Gobernura heltzeko botere judiciala instrumentalizatu dute. Lehendakari berriak esan zuen: "Hemen gaude egon behar ginenak", bai noski, zu lehendakari izateko! Espainiar nazionalismoak ez du ezer emango gatazka bideratzeko; behar duguna da abertzaleen arteko estrategia bat.

**Lizarr-Garaziko garaian kritikatu zenuten ikuspegi soziala baztertu zela. ELA prest legoke ikuspegi hori kontuan hartuko lukeen prozesu subiranista bati ekiteko?**

Batzuek esaten dute: "Maltzagaraino elkarrekin!" eta hara iristean proiektu ezberdinak aurkeztuko direla. Gu ez gaude ados horrekin, interes ezberdinak daude gizartean eta borroka sozialak hasieratik hartu behar du parte, ezin da baztertu.

**Orduan, aukerarik ba al dago?**

Erakunde bakoitzak bere hausnarketa estrategikoa egin dezala. Guk

esan dugu ez dugula konfiantzarik espainolismoak eman lezakeenarekin; hori politikoki frogatuta dago, eta gogorak izan behar dugu Estatuak ematen ez duenarekin. Ikusi dugu EAJk igorri zien proposamena sozialistei. Ikusiko dugu, baita ere, ezker abertzale ofizialaren barruko prozesua nola amaitzen den... Abertzaleok strategiak berrikusteko momentu batean gaude, porrot egin dutelako. Borroka armatua eta gatazka politikoa aldi berean konpontzeko strategiak porrot egin du eta Estatutuaren aldeko apustuak porrot egin zuen duela urte asko. Espainiarrek aukera izan dutenean egin beharrekoa egin dute, eta abertzaleok konplexurik gabe ekin behar diogu. Eskubideak urratzen dizkizunari demokratikoki aurre egiten atrebitzea, horixe da arazoa.

**Eta hausnarketatik harago, ba al dago prozesua hasteko zantzurik?**

Momentuz ez dugu behar duguna ikusten. Egia da fase hau denon kontua dela, baina batzuek zerbait gehiago egin behar dute hori martxan jartzeko.

**Maiatzaren Lehenean banandurik mobilizatzeak harritu egin zuen bat baino gehiago.**

Sindikalismoaren beharrak ezagutzen dituenak ulertzen du jarrera hori. Guri inporta digu lana ondo egiteak, ez da argazki kontu bat.

Ematen zaio garrantzia argazkiari eta argazki baten atzean, askotan, ez da ezer egoten. ■

[www.argia.com/multimedia](http://www.argia.com/multimedia)  
helbidean, elkarriketaren bideoa ikusgai.



**AQUARIUM**

Carlos Blasco de Imaz Plaza, 1 • 20003 Donostia (Gipuzkoa) • Tel: 943 44 00 99  
aquariumss@aquariumss.com • www.aquariumss.com